

BIZIHABI. Belaunaldien arteko bizikidetza



Errespetua eta
inklusioa



Etxebizitza

BIZIHABI. Belaunaldien arteko bizikidetza programa

Gaur egun, gizarte harremanek produktiboak direnean ematen diete protagonismoa pertsoneri, eta ideia hori oso garbi islatzen da gure hirien, eraikinen edo garraio sareen banaketa espazialean ere. Adinekoekiko Euskal Estrategian ikusten zenez, pertsona bakarreko etxeek goranzko joera zuten. Bizitzeko autonomiak eta bakarrik bizi direnen kopuruak gora egin dute, oro har. Hori sintoma positibo bat da, berez, baina ahultasun egoeretan zaurgarritasuna areagotu dezake, eta gizarte interakzioak nabarmen murrizten ditu.

Bizihabi programa belaunaldien arteko bizikidetza eta ostatu partekatuak sustatzeko sortu zen 2023an, Eusko Jaurlaritzaren egungo Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailak babestuta, EAEko erronka sozial eta demografikoei heltzeko. 65 urtetik gorako pertsonen nahi gabeko bakardadeari erantzutea du helburu, eta, aldi berean, 35 urtetik beherakoei aldi baterako bizitoki irtenbide eskuragarri eta kalitatezkoa eskaintzea, belaunaldien arteko elkartasuna indartuz.

Eredua alokairu tradizionaletik haratago doa, eta bizikidetza du ardatz. Bizikidetzako bikote bakoitza kidetasun pertsonaletik eta bizikidetzako bateragarritasunetik abiatuta eratzen da. Horregatik, bateragarritasun test bat egiten da, elkarriketa bultzatzeko eta itxaropenak batera zehazteko. Alderdiek akordio bat sinatzen dute, arauak, ekarpen ekonomikoak eta bizikidetzarako jarraibideak erregulatzeko eta, horrela, hasieratik segurtasuna eta argitasuna bermatzeko. Ez dago zaintzeko obligaziorik, eta harremana borondatezko laguntasunaren eta elkarrengandik ikastearen inguruan antolatzen da.

Bizikidetzako prozesu osoan, Bizihabik etengabeko laguntza profesionala ematen du, eta banakako jarraipena egiten, gertatzen diren gorabeherak konpontzeko eta, aldi berean, parte hartzaile bakoitzarengan sortutako inpaktu soziala jasotzeko.

Dagoeneko nabarmena da programak 2023tik izan duen eragina. 2023ko eta 2024ko aurreko bi edizioetan, berrogei bizikidetza kontratu formalizatu zituen programak — hogeit hamar edizioan eta beste hogeit hamar bigarrenetan —, eta horietatik % 45 lehendik sortutako bizikidetza bikoteen berritzeak izan ziren, haien egonkortasunaren adierazle.

Bi edizioetan, 261 hilabeteko bizikidetza erraztu da guztira, eta adinekoek 76.660,00 €-ko diru sarrera gehigarriak sortu dituzte, beren autonomia ekonomikoa sendotuz. Gainera, bizi kalitatean (gizarte inklusioaren eta pertsonen arteko harremanen alderdietan) hobekuntza sumatu da, eta nahi gabeko bakardade sentimenduan beherakada. Horrek, inpaktu sozial kualitatibo nabarmena islatzen du.

Bizihabik erakusten du gela hutsak dituzten eta gutxiegi erabiltzen diren adinekoen etxebizitzak belaunaldien arteko etxe partekatu bihurtzeak balio ekonomiko, sozial eta emozionala sortzen duela, eta EAE lagunkoiagoa, kohesionatuagoa eta jasangarriagoa eraikitzen laguntzen duela.

1. Erakunde sustatzaileak

Kuvu Homesharing sozietate mugatuak eta Eusko Jaurlaritzaren ongizate, gazteria eta erronka demografikoko saila.

2. Erakunde motak

Publikoa eta pribatua

3. Xade taldea

Bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako pertsonak, gizarte sarerik ez dutenak. Bakarrik bizi zaren ondorioz, interakzio sozialak murriztu egiten dira, eta horrek % 8 handitzen du nahi gabeko bakardadea jasateko arriskua.

35 urtetik beherako gazteak, kalitatezko ostatu merkeak aurkitzeko zailtasunak dituztenak, etxebizitzaren kostua horien diru sarreraren % 40 ingurukoa izan ohi baita. Gizarte osoa, arazoak ageriko egiteko eginkizuna duelako.

4. Lurralde eremua

Euskadi

5. Egoera

Ezartzeko fasean

6. Etiketak

belaunaldien arteko bizikidetza, ostatu partekatua, bizikidetza programa, belaunaldien arteko elkartasuna, nahi gabeko bakardadea, belaunaldien arteko etxebizitza.

7. Helburuak

Bizihabi programaren helburu orokorrak:

- 1.- Adinekoen nahi gabeko bakardadeari eta gizarte harremanen galerari aurrea hartzea.
- 2.- Belaunaldien arteko bizikidetza sustatzea.
- 3.- Adinekoen bizi kalitatea hobetzea, zehazki gizarte inklusioaren eta pertsonen arteko harremanen alderdian.
- 4.- Parte hartzaileek beste belaunaldi batzuekiko duten pertzepzioa aldatzea.
- 5.- EAEko gazteentzako kalitatezko aldi baterako ostatu eskaintza eskuragarria handitzea.

Berariazko helburuak:

- 1.- Bizikidetzako programa sendotzeko eta hedatzeko lan egitea, esperientzietan eta ondorioetan oinarrituta, programaren irismena hedatzeko eta EAEn duen eragina areagotzeko, urtero ezartzen diren bizikidetza kontratuen helburuak betez (2023an, 20; 2024an, 20; 2025ean, 40).
- 2.- Adinekoen eta haien beharren inguruan dauden aurreiritziak eta estereotipoak desagerrarazten laguntzea, bakardadearen tabuari eta bizikidetza ereduari berriei dagokienez, 100.000 pertsonarengan eraginez.
- 3.- Parte hartzen duten adinekoen hileko diru sarrerak 260 € handitzea, batez beste.
- 4.- Parte hartzen duten adinekoen artean nahi gabeko bakardade sentimenduaren adierazleak gutxienez 2 puntu murriztea.
- 5.- Adinekoen bizi kalitatearen adierazleak 0,5 puntu hobetzea, zehazki gizarte inklusioaren eta pertsonen arteko harremanen alderdian.

8. Metodologia

Nazioarteko literaturak nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko zenbait esku hartzeri (taldekakoei, banakakoei eta abarri) buruz hitz egiten du. Bizihabin hauteman dugu, pertsona batzuentzat, oso mugatua dela dauden kontaktuekin berriro harremanetan jartzeko aukera. Pertsonen komunitateko bizitzan berriro sartzeko aukera ematen dieten esku hartzeak egitea da lotura berriak sortzeko eredurik egokiena. Pertsona batzuek oztupo handiak dituztenez, one-to-one ikuspegiak oso baloratuak dira horretarako.

Hasieran, one-to-one ikuspegiak sortu nahi da, etxekide berriarekin interes komunetan oinarritutako lotura bat sortu ahal izateko. Ondoren, interes komunak dituzten beste pertsona batzuekiko harremanetarako gune neutroen bidez, komunitatearekin konektatzeko gune seguruak sortuko dira, interes partekatuetan

edo hezkuntza interesetan oinarritutako jardueren bidez, betiere jarduera horien antolaketan adineko pertsonak parte hartzen badute comunidad a través de actividades basadas en intereses comunes o educativos y en cuya organización estén involucrados las personas mayores.

9. Alderdi berritzalileak

Adineko askok partekatu nahi du bere etxea, baina % 68k pertsona ezagutzen badu bakarrik partekatuko luke. Hau da, gela alokatuko dioten pertsonarekiko mesfidantza, beldur eta segurtasun falta handia dago, baita konpromisoaren denborari edo bizikidetzaren funtzionamendu egokiari buruzko beldurak eta alokairua kudeatzeko beste oztopo juridiko batzuk ere.

Bizihabik zerbitzu osoa eskaintzen du hasieratik amaierara, eta adinekoei aukera ematen die aldi batez etxeko gela bat segurtasun osoz partekatzeko. Horretarako, pertsona egokia hautatzeko aukera, bizikidetza babesteko kontratu bakarra eta hasieratik amaierarako jarraipen sistema eskaintzen ditu.

Beraz, adinekoak euren itxaropen eta interesen arabera egokiak diren gazteekin jartzen dira harremanetan. Ondoren, elkar ezagutzen dute eta elkarrekin bizitzea erabakitzen dute. Bizikidetza kontratua sinatu eta elkarrekin bizitzen hasten dira. Probaldia igaro ostean, jarraipena egiten zaie, bizikidetzaren bilakaera ikusteko, eta, dena behar bezala badoa, esperientziak aurrera jarraitzen du. Jarraipena aldizka egiten da, bizikidetzak irauten duen bitartean.

Esku hartzeko metodo horrek adinekoaren eta gaztearen arteko bizikidetza sustatzen du, adinekoak pixkanaka kontaktu eta harreman pertsonal gehiago izan ditzan, gaztea haren etxean sartzeari esker, orduantxe sentitzen baitute gehienek bakardadea, batez ere gauetan. Gizarte loturak sortzea da programaren helburu nagusia.

Bestalde, adinekoa ahalduntzea (nire etxea, nire arauak) eta aldean arteko berdintasuna dira esku hartzeko ereduaren abiapuntuak; izan ere, bizikide den gazteak ez ditu zaintza lanak edo rolak bere gain hartuko, pisukideak izango direnez, elkarri lagunduko diote. Bizihabiren iritzian, bizikidetza kontratuak ezin dira zaintza lanak egiteari lotuta egon; bizikidetza harremanetik sortzen diren zaintzak soilik dira egitekoak.

Bizihabik belaunaldien arteko berdintasunezko harremanak sortu nahi ditu, bi aldeak ahalduntzeko eta elkarren adostasunarekin eremu partekatuak sustatzeko.

Pertsonaren arretan ardaztutako eredu baten funtsezko printzipioetan oinarritzen da Bizihabi programa; hauek dira nabarmendu beharreko batzuk:

1.- Autonomia printzipioa. Adinekoak eta gazteak erabakitzea zer muga jarri nahi dituzten eta zer muga hedatu eta esploratu nahi dituzten. Prozesu horretan, adineko pertsonak (eta ez bere senitartekoak) du ahots nagusia, eta berak hartzen ditu erabaki garrantzitsu guztiak. Beraz, laguntza prozesu bat sortzera bideratuta dago Bizihabi, non adinekoa izango den bere prozesu bereziaren jabea.

2.- Banakotasunaren printzipioa. Prozesua bakarra da pertsona bakoitzarentzat; izan ere, gure bateragarritasun eta bilaketa eredua pertsona bakoitzaren lehentasunei, itxaropenei, nortasunari eta eskakizunei egokitzen zaie, pertsonak garrantzitsutzat jotzen dituen elementu berezi guztiak kontuan hartuz.

3.- Osotasunaren printzipioa. Bizihabiren ereduaren filosofia honetan datza: norbanakoak sentimendu positiboak izan ditzake, nahi gabeko bakardadeak eragindako sentazio negatibo horiek orekatzeko. Gure ustez, adinekoa gai da bakardade horretatik positiboki ateratzeko, baldin eta osasun mental ona badu eta maitasun ingurune bat badu, ez bakarrik konpainia egiten diona, baizik eta egunerokotasunean eragiten diona, eguneroko bizikidetzan gertatzen denez.

Eskalagarritasun edo erreplika eredua da Bizihabiren beste elementu berritzaileetako bat. Programaren eragina eskalatu ahal izateko, teknologia irigarria eta parekatze sistema paregabe bat erabiltzen ditu Bizihabik, betiere giza faktorea galdu gabe, pertsona guztiek parte hartzeko bideak eta kanalak sortuz (trebetasun digitalak izan ala ez).

Bizihabik aktiboki sustatzen du ekimenaren transferigarritasuna, mota guztietako tokiko eragileen parte hartzea sustatuz, hala nola udalena eta gizarte zerbitzuena. Horretarako, eragile anitzeko harremanak gauzatzen ditu urtero, EAE osoan programaren kapilaritatea erraztuko duten lankidetzak sareak bultzatuz.

Bizihabin berezkoa dugu herritarrek diseinuan, ebaluazioan eta ezarpenean parte har dezaten ahalbidetzea, independentziaren eta parte hartzearen printzipioari jarraikiz. Erabiltzaileak inplikatu egiten ditugu proiektuaren parte hartze aktiboan, diseinuan, komunikazioan, funtzionamenduan eta ekitaldietan, haiek baitira prozesuaren jabeak. Horren adibide da 2025. urte honetan abian jartzen ari garen enbaxadoreen sarea. Sare horretan parte hartzen duten adinekoak dira beste parte hartzaile batzuk sarera erakartzeko rol aktiboa hartzen dutenak. Bestalde, parte hartzaileek aukeratzen dute nahi duten bizikidetzak mota, pertsona mota eta konpromisoaren iraunaldia; pertsonak berak diseinatzen du bere esperientzia, eta protagonista sentitzen da.

10. Ebaluazioa eta emaitzak

Bizihabin, programaren iraupen osoan integratzen dugu ebaluazioa, datu sistema baten bidez. Datuok erabiltzaileen jarraipenetatik, sinatzen diren bizikidetzak kontratuetatik eta SROIren hurbilketatik jasotzen dira, oraindik ikerketa fasean dagoen metodologia baten bidez, programak aurrezpen publikoan duen eragina ebaluatzeko, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren, telelaguntzaren eta osasun sistemaren alorretan.

Gainera, urtero, etengabeko hobekuntza prozesuaren barruan, edizioa aztertzen dugu, eta hobekuntza ondorioak ateratzen ditugu, hurrengo edizioan aplikatzeko. Horrela, parekatze denborak murriztuz joan gara, eta laguntza prozesuen kalitatea hobetuz.

Helburuak betetzeari dagokionez:

Nahi gabeko bakardadea prebenitu eta murrizteko helburua:

20 bizikidetza kontratu sinatu ditugu 2023an (helburuen % 100), 20 kontratu 2024an (helburuen % 100), eta, guztira, 261 bizikidetza hilabete izan dira. Orain, 2025ean 40 kontratu sinatzea dugu helburu.

Parte hartzaileen bakardade maila batez beste 1,5 puntu murriztea lortu dugu, Erresuma Batuan sortutako unwanted loneliness measurement tool adierazlearen bidez.

2024an sinatutako kontratuen % 45 bizikidetza bikote errepikatzailen berritzeetatik datoz.

Adineko erabiltzaileen diru sarrerak hobetzeko berariazko xedeari dagokionez 78.660,00 €-ko diru sarrerak sortu ditugu: 36.050 €-koak 2023an eta 42.610 €-koak 2024an. Beraz, horretan ere bete egin dugu helburua.

Gizarte inklusioaren eta pertsonen arteko harremanen alderdian bizi kalitatea hobetzeari begira, bilakaerak positiboak izan dira kasu guztietan, eta eragina, aldakorra pertsonaren zaurgarritasunaren arabera, baina gutxienez 0,5eko eragina izateko helburua gaundituz.

2023ko eta 2024ko edizioen artean, probintziaren arabera udalerri hauetan eman zaie alta gelei adinekoen etxebizitzetan:

Bizkaia: Bilbo, Erandio, Santurtzi, Leioa, Karrantza, Portugalete, Maruri, Gatika, Getxo

Gipuzkoa: Donostia, Hernani, Deba, Beasain

Araba: Gasteiz

Guztira 3.424 ostatu eskaerari erantzun zaie telefonoz edo mezularitza bidez 2023an, eta 8.008 eskaerari 2024an.

Udalerri hauetan sinatu dira bizikidetza kontratuak:

Bizkaia: Bilbo, Leioa, Erandio, Santurtzi, Karrantza, Maruri

Gipuzkoa: Donostia, Hernani, Deba

Araba: Gasteiz

Gainera, Bizihabi programaren barruan, 100.000 laguni baino gehiagori eragin dieten komunikazio ekintzak egin dira, estereotipoak murrizteko eta belaunaldien arteko bizikidetza ageriko egiteko.